



AKTEA/09

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2025-03-25)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2025-03-25 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:30
Amaiera-ordua:	08:41
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
26/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025
10:34:50

DOCUMENTO: 20251211293

Datea: 26/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-03-18 TGB (08)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- 017-0013-00087 eta 017-0002-00482 partzelen lur banaketa lizentzia onartzea.
- 4.- 20.2 esku hartze areako lur banaketaren lizentzia aldaketa onartzea.
- 5.- 3/2025 epaitegiko dekretuaz berri ematea.
- 6.- 5/2025 epaitegiko dekretuaz berri ematea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri ematea.
- 8.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-03-18 TGB (08)


Bertaratutako batzarkideek 2025eko martxoaren 18ko 08/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- 017-0013-00087 ETA 017-0002-00482 PARTZELEN LUR BANAKETA LIZENTZIA

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025 10:34:50

DOCUMENTO: 20251211293

Fecha: 26/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2



ONARTZEA.**Gaia**

Lur banaketa lizentzia eskaria, 017-0013-00087 eta 17-0002-00482 partzei buruzkoa.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko apirilaren 17an, A.A.D. jaunak, lur banaketa lizentzia eskaera egin zuen. Horrekin batera, jabeen arteko akordio sinatua, 017-0013-00087 eta 17-0002-00482 partzelen katastroko fitxak, eta planoak aurkeztu zituen.

Bigarrena.- 2024ko azaroaren 13an, A.A.D. jaunak, administrazio-isiltasunaren bidezko presuntziozko egintzaren ziurtagiria eskatu zuen.

Hirugarrena.- 2024ko azaroaren 21ean, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2024ko azaroaren 22an, Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2025eko urtarrilaren 27an, A.A.D. jaunak jabetza eskrituren zirriborroa aurkeztu zuen.

Seigarrena.- 2025eko martxoaren 19an, udal arkitektoak txostena egin zuen.


Zazpigarrena.- 2025eko martxoaren 19an, Urigintza, Obra eta Ingurumen teknikariak txostena egin zuen.

Oinarri juridikoak

Lehenengoa.- 2024ko azaroaren 21ean Bermeoko Udaleko arkitektoak hurrengokoa adierazi zuen bere txostenean:

“Lur banaketa egin nahi den lurri buruzko hurrengo deskribapena aurkezten da:

Rustica: Caserío “BASOGALANTA DE ABAJO”, y sus pertenecidos, situado en el barrio de Aranas, hoy Barrio Arane Gibelortzaga, señalada con el número 38 de la villa de Bermeo. El edificio de la casería se compone de piso bajo, un piso alto y desván y ocupa una superficie de ochenta y un metros cuadrados y confina por todos sus lados con sus pertenecidos, los cuales son los siguientes: EL MONTE, MANZANAL Y HEREDAD, que se hallan en un perímetro, mide cinco hectáreas y sesenta y cinco áreas, confinando por Norte, con montazgo de Don J.B. y carretera provincial; por Sur y Oeste, con terrenos adjudicados a la otra casa Basogalanta de Arriba; y por el Este, con otros de Don Manuel Arruabarrena y Don Antonio de



Aranburu. Una HEREDAD que mide treinta y tres áreas, y linda al Norte, con montazgo de Don J. B. y de Don R. de la S.; por Sur, con carretera provincial; por el Este, con montazgo del citado Don J.B.y por Oeste con heredad adjudicada a Basogalanta de Arriba.

REFERENCIA CATASTRAL: Número Fijo: El caserío: U0050868 P. y los pertenecidos 0301413T. Corresponde a los números de identificación catastral 017-0002-00482-0001 y 017-0013-00087-0001.

REGISTRO DE LA PROPIEDAD: El inmueble está inscrito en el registro de la propiedad de Gernika al Tomo 1799, Libro 389, Folio 180, Finca número 1953.

Lursail hori Bizkaiko Foru katastroan definituriko ondorengo lursailek osatzen dute:

KATASTROKO ERREFERENTZIA	KATASTROKO AZALERA	AZALERA TOPOGRAFIKOA
017 0002 00482 0001	4.076,19	3.653,00
017 0013 00087 0001	51.801,65	50.524,00
Guztira:	55.877,84	54.177,00


Partzelak Urdaibai Biosfera Erreserbaren eremuan daude, eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ezartzen duen legez, banaketa horretatik ezin izango da nekazaritzako gutxiengo lurzatiren neurrikoa edo gutxiagokoa den lursailik sortu.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren 3.5.1.3. artikulua

3.– Plan honen ondorioetarako, nekazaritzako gutxiengo lurzattia izango da uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan, edo hori ordezkatzeko duen arauan, Bizkaiko Lurralde Historikoko definitzen den labore-unitate minimorako ezartzen den gutxiengo azalera (7.500 m²) duen barruti osoa eratzen duena.”

Uztailaren 8ko Euskal Autonomi Elkarteko lehentasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxiengo unitateak zehazten dituen 168/1997 Dekretuko 7. artikulua (Laborantzarako gutxiengo unitateak EAEn) Bizkaiko Lurralde Historikoan laborantzarako gutxiengo unitatea 0,75 hektareatakoa izango dela zehazten du. Beraz, gutxienez, finka berri bakoitzak 7.500 m² izan beharko ditu.

Eskatzaileak hasieran eginiko planteamenduan, bost lurzatitan banatuko ziren gaur egungo partzelak. Lurzati berriak ondorengo moduan deskribatzen zituen eskatzaileak:



Lote 1: Con una superficie de 7.501 metros cuadrados. Linda al norte con Don Julián Bilbao; por el Sur, con pertenecidos de Basogalanta de Arriba y finca matriz; Oeste, con pertenecidos de Basogalanta Arriba; por el Este, con propiedad de Manuel de Arrueabarrena, con propiedad de Antonio de Aranburu, y con Carretera de Bermeo a Bakio.

Lote 2: Con una superficie de 7.501 metros cuadrados. Linda al norte con la finca lote 1 segregada; por el Sur, con el lote número 3 segregado; por Oeste, con pertenecidos de Basogalanta de Arriba; y por el Este, con carretera general Bermeo a Bakio. Dentro de este Lote número 2, se ubica el caserío Basolaganta con sus edificaciones accesorias. Esta finca constituirá la finca Matriz.

Lote 3: Con una superficie de 9.688 metros cuadrados. Linda al norte con finca Matriz; por el Sur, con Lote segregado número 4, y Lote segregado número 5; por el Oeste, con pertenecidos de Basogalanta de Arriba; y por el Este, con carretera general y Lote segregado número 4.

Lote 4: Con una superficie de 14.180 metros cuadrados. Linda al norte con Lote segregado número 3; por el Sur, con pertenecidos de Basogalanta de arriba; por Oeste, con Lote segregado número 3, y Lote segregado número 5; y por el Este, con carretera general Bermeo a Bakio


Lote 5: Con una superficie de 15.000 metros cuadrados. Linda al norte con pertenecidos de Basogalanta de Arriba, y con Lote Segregado número 3; por el Sur, con pertenecidos de Basogalanta de Arriba; por el Oeste, con pertenecidos de Basogalanta de Arriba; y por el Este, con Lote segregado número 4.

Hasierako planoetan ere lurzati berrien azalerak agertzen ziren, ondorengo laburpen taulan jasota:

PARTZELA BERRIAK		AZPIPARTZELAK	AZALERA TOPOGRAFIKOA	
			Planoen arabera	Deskribapenaren arabera
1. Lotea	1-A. Lotea	3.653,00	7.501,00	7.501,00
	1-B. Lotea	3.848,00		
2. Lotea			7.501,00	7.501,00
3. Lotea			9.688,00	9.688,00
4. Lotea			14.437,00	14.180,00
5. Lotea			15.050,00	15.000,00
Guztira:			54.177,00	53.870,00

Ikusi daitekeen moduan, planoetan eta deskribapenean 4. eta 5. loteentzako adierazitako azalerak ez zetozen bat, nahiz eta laborantzarako gutxieneko unitatea baino handiagokoak izan bi kasuetan. Hala ere, lur banaketaren ondorioz sortuko diren gainerako lursailek ere 7.500 m²-tik gorako azalera minimoa gainditzen zuten.

2024ko azaroaren 22an, Urigintza, Obra eta Ingurumen teknikariak bere txostenean



ondorengoa zehaztu zuen honen inguruan: *Planteatutako segregazioa gauzatu liteke, hala ere, horretarako jabetza eskrituren zirriborroa aurkeztu beharko da, bertan, segregatutako finka bakoitza deskribatuko da eta aipatutako 4. eta 5. loteen azalaren errakuntza zuzendu.*

Beraz, segregazio baimena izapidetzen jarraitzeko, aipatutako eskrituren zirriborroa aurkeztu beharko da.

Bigarrena.- Aurrekarietan esan bezala, 2025eko urtarrilaren 27an, A.A.D. jaunak jabetza eskrituren zirriborroa aurkeztu zuen, eta udal arkitektoak, oster, 2025eko martxoaren 19an egin zuen bere txostena. Hurrengoa adierazi zuen:


2025eko urtarrilaren 27an aurkeztutako jabetza eskrituren zirriborroan zuzendu dira 2024ko azaroaren 21eko txostenean aipatutako azalaren akatsak, eta egokitze hartu dira planoetan agertzen zirenak. Beraz, lurzati berrien azalera ondorengo hauek izango dira:

		AZALERA (m ²)	
		AZPIPARTZELAK	PARTZELAK
1. Lotea	1-A. Lotea	3.653,00	7.501,00
	1-B. Lotea	3.848,00	
2. Lotea			7.501,00
3. Lotea			9.688,00
4. Lotea			14.437,00
5. Lotea			15.050,00
Guztira:			54.177,00

Ikusi daitekeen moduan, partzela berrien azalera laborantzarako gutxieneko unitatea baino handiagokoak dira, hau da, 7.500 m²-tik gorako azalera dute.

Guzti horregatik, planteatutako segregazioa burutu litzatekeela adierazi zuen udal arkitektoak, alde batetik, aurretiko zuzenketak gauzatu zirelako; bestetik, gutxiengo azalera errespetatzen direlako.

Hirugarrena.- Aurreko atalean ikusi den bezala, zuzenketak burutu dira, eta lizentzia bat dator hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2025eko martxoaren 19an egindako txostenari jarraiki. Hortaz, hura Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. 2 eta 4 artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoarekin bat izapidetu behar da.



Kasu honetan, segregazio lizentzia emateko prozedurari dagokionez, 2/2006 Legeko 207.1 artikulua ezartzen duen bezala eman beharko da, besteak beste, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi.

b) Instrukzioa

Baimena eman aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea.


c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren. Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikuluekin bat etorriz, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886 Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrek eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko apirilaren 17an, A.A.D. jaunak 017-0013-00087 eta 017-0002-00482 partzelen inguruan egindako lur banaketa eskaeraren lizentzia ematea, 2025eko martxoaren 19an udal arkitektoaren txostenean zehaztutako datu hauen arabera:



Lote uno.- Está formado por dos porciones de terreno. La primera porción, situada al lado Este de la carretera que une Bakio y Bermeo. Tiene una superficie de tres mil seiscientos cincuenta y tres metros cuadrados (3.653 m²). Linda al norte, con terrenos de Don J.B.y Don R. de la S., al Este, con camino, carretil, al Sur y Oeste con carretera. Y la segunda porción, situada al lado Oeste de la carretera. Tiene una superficie de tres mil ochocientos cuarenta y ocho metros cuadrados (3.848 m²). Linda al Norte, con el Montazgo de J.B., al Este con carretera, al Sur, con resto de finca matriz o lote dos, al Oeste, con terrenos de Basogalanta de Arriba.

Lote tres.- Porción de terreno de nueve mil seiscientos ochenta y ocho metros cuadrados (9.688 m²). Linda al Norte con el resto de finca matriz, al este con carretera y terrenos de M.A. y A.A., al Sur, con lotes cuatro y cinco, y al Oeste con terrenos de Basogalanta de Arriba.

Lote cuatro.- Porción de terreno de catorce mil cuatrocientos treinta y siete metros cuadrados (14.437 m²). Linda al Norte con lote tres, al este con terrenos de M.A. y A.A., al Sur con terrenos de Basogalanta de Arriba, y al oeste con lotes tres y cinco.

Lote cinco.- Porción de terreno de quince mil cincuenta metros cuadrados (15.050 m²). Linda al Norte con terrenos de Basogalanta de Arriba y lote tres, al Este con lote cuatro, al Sur y al Oeste con terrenos de Basogalanta de Arriba.

Resto de finca matriz (Lote dos).- Porción de terreno de siete mil quinientos un metros cuadrados (7.501 m²). Linda al norte con el lote número uno, al Este con carretera, al Sur con lote tres, y al Oeste con lote uno y terrenos de Basogalanta de Arriba. Sobre dicho terreno se halla el caserío BASOGALANTA DE ABAJO, sito en el número 38 de Arane Gibelortzaga. El edificio de la casería se compone de piso bajo, un piso alto y desván y ocupa una superficie de ochenta y un metros cuadrados y confina por todos sus lados con el terreno en el que se asienta.


BIGARRENA.- Lizentzia honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 hilabeteko epean, banatzea egingo den agiri publikoa aurkeztuko da udalean, zeinek lizentzia honen testu osoa jaso beharko duen.

Aipatutako dokumentua aurkezten ez bada, lizentzia iraungi dela ulertuko da.

HIRUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da hirugarrenei kalterik eragin gabe eta lizentziaren titularraren erantzukizun eksklusibopean.

LAUGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuoak likidatzeko.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezko errekurtsioak adieraziz.



4.- 20.2 ESKU HARTZE AREAKO LUR BANAKETAREN LIZENTZIA ALDAKETA ONARTZEA.

Gaia

Lur banaketa lizentzia aldaketa eskaria, San Martin auzoko Klarisen komentuko lursailean, Bermeoko HAPOak mugatutako 20.2 arean.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2009ko azaroaren 5ean, Bermeoko Udalak hitzarmena sinatu zuen San Martin auzoan kokatutako Klarisen komentuko ordezkariarekin, komentuko lursaileko 20.2 esku hartze areako lur zati bat segregatu eta urbanizatzeko.

Bigarrena.- 2021eko apirilaren 14an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2021eko apirilaren 14an, Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2021eko apirilaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen 2009ko azaroaren 5ean Bermeoko Udalaren eta Klarisen komentuko ordezkariaren artean sinatutako hitzarmenaren bidez Bermeoko Udalari lagatu zen zatia finka nagusitik segregatzeko lizentzia ematea.

Bosgarrena.- 2021eko maiatzaren 7an, Gernikako Jabetza Erregistrora dokumentazioa bidali zen higiezinaren inskripzioa egin zedin, dokumentazioan zehazten zenaren arabera.


Seigarrena.- 2022ko urtarrilaren 12an, dokumentazioa Bermeoko notaritzara bidali zen hiri-lurzoruan dagoen finka nagusiaren banatze-eskriturak prestatzeko.

Zazpigarrena.- 2025eko urtarrilaren 28an, eskrituren zirriborroa jaso zen.

Zortzigarrena.- 2025eko otsailaren 11n, Y.N.V., Santa Ana Komentuko Klarisen Komunitatearen izenean banantze-lizentziaren espedientea aldatzeko eskaera egin zuen. Eskaerarekin batera plano topografiko berria erantsi zen.

Bederatzigarrena.- 2025eko martxoaren 18an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Oinarri juridikoak



Lehenengoa.- Udal arkitektoaren txostena

2025eko martxoaren 18an, udal arkitektoak bere txostenean ondorengoak adierazi zuen:

Finka nagusia Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) mugatutako lurzoru finkatuko A.20 Lurralde areako EA.20.2 Esku Hartze arean kokatzen zen.

2009 urtean zehar EA.20.3 esku hartze arearen garapen urbanistikoa ematen ari zela, EA.20.3 esku hartze arearen urbanizazio lanak amaitzean, inguruko hiri sarea osatzeko, San Martin auzoko Klarisen komentuko ordezkariarekin hitzartu zen, finka nagusiaren EA.20.2 esku hartze arean kokatutako 1.144 m²-ko zatia Udalari lagatzea, betiere, lagatutako zatiaren urbanizazio lanak Udalak bere gain hartzeko baldintzapean.

Bestalde, hitzarmenak jasotzen du komentua 20.2, R2 Egoitza Mistoko Arean dagoela, eta, gutxi gorabehera, 2.892 metro karratuko azalera duela (lagapena egin ondoren, ondoriozko finka 1.748 metro karratuko izango lituzke). Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du jabetzak duen hirigintza-kalifikazioari edo -erabilerari eusteko.

Gaur egun, finka nagusitik Udalari lagatutako eremua urbanizatua dago, segregazio honen helburua jabetza erregistroan bereizitako zatia eta finka nagusiaren gainerako zatia egokitasunez inskribatzea da.


Hala ere, akatsa legoke esandako deskribapenetan, ondorengo puntuan azalduko den legez.

Bigarrena.- Partzelen egoeraren deskribapena

Finka nagusiaren erregistroko datuei dagokienez, ondorengoak ziren hasiera batean:

Finca matriz: Finca 14.131, del folio 195, libro 191 del Tomo 824 del Registro de la Propiedad de Gernika-Lumo.

*Finca llamada Ibarreta, sita en la Villa de Bermeo. Mide **dos mil ochocientos noventa y dos metros con ochenta decímetros cuadrados**, que linda por Norte y Oeste, con terreno segregado para formar la finca número 17460, al folio 130, del libro 268 de Bermeo; por Sur, con Martín Deuna Bidea s/n; y por Este, con Comunidad de Vecinos 28, I.M. y J.M.*



2021eko apirilaren 27an emandako segregazio lizentzian, oster, ondorengo datuak jasotzen ziren:

Finca segregada: De la anterior finca se segrega la siguiente porción de terreno:

*Segregación: De la mencionada finca se procede a la segregación de una porción de **mil ciento cuarenta y cuatro metros aproximados de superficie**, de forma rectangular, y alargada, dispuesta en sentido Norte-Sur, en cuya parte Norte y a lo largo de treinta metros tiene una anchura, debida a las plazas de aparcamiento previstas, de veinticinco metros aproximadamente y que en la parte Sur, alcanza un largo de dieciocho metros por doce de ancho. Linda al Norte con parte de la finca 17460 de la que se segregó anteriormente; al Oeste, con la parcela matriz de la que ahora se segrega; al Sur, con Martin Deuna Bidea y al Este con Comunidad de Vecinos 28, I.M. y J.M.*


Hala ere, udal arkitektoaren txostenean ondo adierazten den bezala, 2021ean emandako segregazio lizentziaren ondoren eginiko plano topografikoan ikusi da partzelen azaleretan akatsa dagoela; izan ere, finka nagusiaren azalera 2.680,84 m²-koa da; banatutako partzelaren azalera, berriz, 1.101,85 m²-koa (eta ez 1.144 m²-koa, lizentzian agertzen zen moduan); azkenik. gelditzen den finka pribatuaren azalera berria 1.578,99 m²-koa litzateke.

Hori dela eta, udal arkitektoaren txostenarekin bat eginez, ondoriozko finka segregatuaren deskribapena ondorengoa litzateke:

Finca segregada: De la finca matriz se procede a la segregación de una porción de **mil ciento un con ochenta y cinco metros cuadrados (1.101,85 m²)** de superficie, de forma rectangular, y alargada, dispuesta en sentido Norte-Sur, en cuya parte Norte y a lo largo de treinta metros tiene una anchura, debida a las plazas de aparcamiento previstas, de veinticinco metros aproximadamente y que en la parte Sur, alcanza un largo de dieciocho metros por doce de ancho. Linda al Norte con parte de la finca 17460 de la que se segregó anteriormente; al Oeste, con el resto de la parcela matriz de la que ahora se segrega; al Sur, con Martin Deuna Bidea y al Este con Comunidad de Vecinos 28, I.M. y J.M..

Finka nagusia berriz, behin akatsa konpondurik, ondorengo egoeran geratuko litzatekeela adierazi genezake:

Resto de finca matriz: Finca llamada IBARRETA, sita en la villa de Bermeo, de **mil quinientos setenta y ocho con noventa y nueve metros cuadrados** de extensión (1.578,99 m²), que Linda por Norte y Oeste, con terreno segregado para formar la finca número 17460, por Sur con Martín Deuna Bidea, s/n, y por Este con parcela segregada para la construcción del vial público.



Hirugarrena.- Lizentzia

Aurreko atalean ikusi den bezala, zuzenketak aipaturikoak lirateke, eta lizentzia bat dator hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2025eko martxoaren 18an egindako txostenari jarraiki. Hortaz, hura Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. 2 eta 4 artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoarekin bat izapidetu behar da.

Kasu honetan, segregazio lizentzia emateko prozedurari dagokionez, 2/2006 Legeko 207.1 artikulua ezartzen duen bezala eman beharko da, besteak beste, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi.


b) Instrukzioa

Baimena eman aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea.

c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren. Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikuluekin bat etorriz, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886 Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025 10:34:50

DOCUMENTO: 20251211293

Data: 26/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2



Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko otsailaren 11n, Y.N.V.ek, Santa Ana Komentuko Klarisen Komunitatearen izenean egindako banantze-lizentziaren aldaketa eskaera onartzea, 2025eko martxoaren 18an udal arkitektoaren txostenean zehaztutako datu hauen arabera:

Hau jartzen duen lekuan:

***Finca segregada:** De la anterior finca se segrega la siguiente porción de terreno:*

*Segregación: De la mencionada finca se procede a la segregación de una porción de **mil ciento cuarenta y cuatro metros aproximados de superficie**, de forma rectangular, y alargada, dispuesta en sentido Norte-Sur, en cuya parte Norte y a lo largo de treinta metros tiene una anchura, debida a las plazas de aparcamiento previstas, de veinticinco metros aproximadamente y que en la parte Sur, alcanza un largo de dieciocho metros por doce de ancho. Linda al Norte con parte de la finca 17460 de la que se segregó anteriormente; al Oeste, con la parcela matriz de la que ahora se segrega; al Sur, con Martin Deuna Bidea y al Este con Comunidad de Vecinos 28, I.M. y J.M..*

Hau jarri beharko du:

***Finca segregada:** De la finca matriz se procede a la segregación de una porción de **mil ciento un con ochenta y cinco metros cuadrados** (1.101,85 m²) de superficie, de forma rectangular, y alargada, dispuesta en sentido Norte-Sur, en cuya parte Norte y a lo largo de treinta metros tiene una anchura, debida a las plazas de aparcamiento previstas, de veinticinco metros aproximadamente y que en la parte Sur, alcanza un largo de dieciocho metros por doce de ancho. Linda al Norte con parte de la finca 17460 de la que se segregó anteriormente; al Oeste, con el resto de la parcela matriz de la que ahora se segrega; al Sur, con Martin Deuna Bidea y al Este con Comunidad de Vecinos 28, I. M. y J.M..*

Eta, hau jartzen duen lekuan:

***Resto de finca matriz:** Finca llamada IBARRETA, sita en la villa de Bermeo, de **mil setecientos cuarenta y ocho cuadrados** de extensión (1,748 m²), que Linda por Norte y Oeste, con terreno segregado para formar la finca número 17460, por Sur con Martín Deuna Bidea, s/n, y por Este con parcela segregada para la construcción del vial público.*

Hau jarri beharko du:

***Resto de finca matriz:** Finca llamada IBARRETA, sita en la villa de Bermeo, de **mil quinientos setenta y ocho con noventa y nueve metros cuadrados** de extensión (1.578,99 m²), que Linda por Norte y Oeste,*



con terreno segregado para formar la finca número 17460, por Sur con Martín Deuna Bidea, s/n, y por Este con parcela segregada para la construcción del vial público.

BIGARRENA.- Lizentzia honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 hilabeteko epean, banatzea egingo den agiri publikoa aurkeztuko da Udalean, zeinek lizentzia honen testu osoa jaso beharko duen.

Aipatutako dokumentua aurkezten ez bada, lizentzia iraungi dela ulertuko da.

HIRUGARRENA.- Behin Notario aurreko agiri publikoa lortuta, Jabetza Erregistroko inskripzioa egin beharko du interesdunak.

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da hirugarrenei kalterik eragin gabe eta lizentziaren titularraren erantzukizun eksklusibopean.

BOSGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezko errekursoak adieraziz.

5.- 3/2025 EPAITEGIKO DEKRETUAK BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 3/2025 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:


"DISPONGO: Declarar terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por el Procurador D. R. B. M., en nombre y representación de D. A.E.H. contra la actuación administrativa referenciada. Sin costas."

6.- 5/2025 EPAITEGIKO DEKRETUAK BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 5/2025 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:

"1.- Se declara terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por A.E.H., representado por la Procuradora N. M. C. contra la actuación administrativa referenciada. Sin costas.

2.- Una vez firme esta resolución, archívense los mismos."



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025 10:34:50

DOCUMENTO: 20251211293

Fecha: 26/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

8.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20250325_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "2025eko Martxo 25ko Tokiko Gobernu Batzarra" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditate elektronikoa erantsitako dokumentu elektronikoen bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

1aa5ba89ea7e4f26dbd79d6bda662947c3a65441e3ed808e4c5c6e39bf452d73

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025 10:34:50

DOCUMENTO: 20251211293
Data: 26/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2



Orri oinean sinatzaileak eta datak

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E900127B9D00N9D2N0H0F0W2	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 26/03/2025 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 26/03/2025 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/03/2025 10:34:50	DOCUMENTO: 20251211293 Datea: 26/03/2025 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia	
--	--	--	---	---